



Les mystères des Landes

Pierre Chavot

Akitaniako Landak ezagutu nituenetik, hamalau edo hamabost urte joanak dira. Dakizuenez, Frantzia aldean daude, Akitania izeneko lurraldearen barruan. Léon herrian zegoen kanpin batean bagenuen mobil-home bat, izen bereko lakuaren ondoan. Duela sei edo zazpi urte saldu genuen, pena handiz saldu ere, baina orduz geroztik ere, inguru horretara joaten jarraitu dugu udako oporrak familian pasatzera, eta egia esateko, inguru horiek oso gogoko ditut.

Azken oporraldia lakuari inguratzen zaizkion hiru kanpinetako batean igaro genuen, beti bezala, eta kanpineko saltokian gaur hemen aurkezten dizuedan liburua topatu nuen. Aldez neure frantsesa hobetzeko aldez frantziar inguru horien historia hobeto ezagutzeko eskuratu nuen, eta presarik gabe, eta pausa askorekin, azkenean lortu dut liburuaren azken orrialdera iristea.

350 orri inguru ditu, liburuaren formatua handi xamarra izanik. Orriotan landen historia, bertako mitoak eta elezaharrak azaltzen zaizkigu, hala nola lurralde hau markatu duten garai ezberdinak. Liburuak, laburzki esanda, inguruok pixka bat hobeto ezagutzeko balio ditu, zeren, hara turista soil modura joan arren, beti ondo baitago ezagutza horretan pittin bat sakontzea, batez ere, leku berera askotan joaten bazara...

Horrez gain, geografikoki hitz eginez, Euskal Herria eta Landak ez daude oso urrun bata bestetik. Eta, gainera, kultur alderdi ugari eta gertaera historiko asko partekatu izan dituzte: historiaurreko kobazuloak eta hilobi-harriak, hainbat garaitako aztarnategi arkeologikoak (burdin aroa, brontze aroa, e.a.), agoteak, elezaharrak, inkisizioaren garaiak, sorgin-ehiza, sineskeriak, erdi aroko gizartea, inbasioak, erromanizazioa...

Neurri handi batean, landen eta euskal herrien artean kultur alderdi eta gertaera historiko ugari partekatzen ditugula esan daiteke, eta landen historia pixka bat ezagutzeak geure historiaz daukagun ezagutza zabaltzeko ere balio digu, zalantzarik gabe.

Eta orain, liburuaren haritik baina liburua une batez alde batera utziz, turismoari buruzko gogoeta txiki bat egin nahi nuke, baita turismoaz daukadan ikuspegiaz ere.

Bai nire familia-bizitzagatik bai nire izaeragatik, orain arte behintzat, ez naiz oso-oso bidaiazalea izan, oporretan urrutiko lekuetara joateko premia handirik ez dut inoiz sumatu, beraz. Nire ohiko bizilekutik urrutiegi ez dauden herrietara joateak gehiago gatibatzen nau, urrun daudenetara joateak baino. Hala ere, aldi berean, kultur aldaketa nabarmen bat –hizkuntza-aldaketa barne– bilatzen dudala gehitu behar dut. Eta hori guztia lortzen duzu, esaterako, Landetara joanez gero.

Oro har, bi turismo-mota daude: batetik, distantzia handiak egiten dituen eta ia urtero destinoz aldatzen dena; eta bestetik, distantzia gutxi egiten dituen eta ia inoiz destinoz aldatzen ez dena. Azken turismo-mota hau da nik praktikatu dudana, gehienbat. Ez dut esaten mundu guztiak praktikatu behar duen modalitatea denik. Hori, bakoitzaren kontua da. Baina nire kasuan, behintzat, turismo-mota horrek asko erakartzen nau.

Urrutiko herrialde asko korrika eta presaka ezagutzea, orduak eta orduak hegazkin baten barruan/zain egotea, aireportuetako itxaronaldi luze eta aspergarriak... Horrek inora joateko gogoak kentzen dit. Gainera, turismo-mota horretan halako esnobismo bat, kontsumismo jakin bat ez ote dagoen susmatzen dut, ez dakit nola esan... “munduko leku guztietan” egoteko halako “antsia” bat... Zertarako hainbeste bidaiatu? Behartuta egiten baduzu, lanagatik alegia, soldata irabazteko baldin bada, bueno, hori uler dezaket. Baina plazeragatik...

Nire ustez, gure bidaiak inguru jakin batzuetara mugatuz gero, azkenean “gehiago” ezagutuko dugu, “bidaiariagoak” izango gara, aireportu batetik bestera oporrak pasatzen dituzten beste lagun asko baino. Izan ere, turista batzuk autistak bezalakoak dira, bisitatzen dituzten herrialdeak zeharkatzen dituzte postalak izango balira bezala, baina herrialde horien hizkuntzak, kultura, historia, ohiturak, gorabeherak, eta abar... pittin bat sikiera ulertzeko ahalegin handirik egin gabe. Areago, nik gustu txarreko zat jotzen dut pobrezia gorria eta txirotasun endemikoa sufritzen duten herrialdeetara joatea turismoa egitera, batez ere turismoak balio ez duenean biztanleria txirotasunetik ateratzeko, den-dena gobernu ustel eta zekenek esku gelditzen delako.

Nahiago dut “gertuko bidaiatxoak” egitea, eta, esaterako, beti ondo-ondoan izan dudana herrialde bat pixka bat hobeto ezagutzeko, eta bide batez, herrialde horren hizkuntzaz, kulturaz, gizarteaz eta historiaz dudana ezagutza hobetzeko aprobetxatzea. Nik uste dut horrek lagundu egiten digula posizio abantailatsu bat hartzen, lagundu egiten digula benetan nor garen, nor izan nahi dugun pentsatzen eta erabakitzen.

Azkenik, Leóngo lakua askotan bisitatzen duten gipuzkoar ugariei ziur gustatuko zaiela liburu honetan jasotako ondoko ele-zaharraren berri izatea:

“Lou Boum” Léongo lakuan bizi den munstro bat da. Gauez, eztanda-moduko hotsak ateratzen ditu (hortik haren izena) eta lehortea, hotza eta elikagaien garestitzea iragartzen ditu. Batzuek “Bécut”¹ izeneko erraldoiarekin identifikatzen dute, beste batzuek zingiretako emanazioekin, baita “Lou Houlet” edo “Lou Fantom” deritzon

¹ Bécut: Haurrak jaten dituen ogro bat da. Bere begi bakarra kopetan du. Haren sudura txerri baten muturraren antzekoa da. Espiritu gaizto batengandik jasotzen du bere botere iluna. Bizitzeko eta bizirik irauteko, haragi fresko eta samurra behar du. Analogiaz, “bécut” esaten zaio horzkada amorratuak ematen dituen eta erresumin itzela eragiten duen eltxo bati.

hegazi erraldoi batekin ere. Uren espiritua izango litzateke; eta gauez, txistu-antzeko arnasa ito bat ateraz, urak bortxa handiz astintzen omen ditu, batez ere d'Huchet izeneko ur-korrontean. Orduan, gauza bakarra egin daiteke: lehenbailehen ihes egin!